

## ZER DIRA MILURTEKOAREN HELBURUAK?

Nazio Batuen Erakundearen Milurtekoaren Adierazpean (2000) jasotako zortzi helburu dira, eta mundu guztiko gobernuak konprometitu dira 2015. urterako helburu horiek betetzera. Helburu garrantzitsuenetako bat da "generoen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea bultzatzea pobrezia, gosea eta gaixotasunak eraginkortasunez ezabatzeke, eta benetan iraunkorra izango den giza garapena sustatzea"

1. Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea.
2. Lehen hezkuntza unibertsala lortzea.
3. Generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea
4. Haurren heriotza tasa murriztea.
5. Amaren osasuna hobetzea.
6. GIB/HIESari, malariari eta bestelako gaixotasunei aurre egitea.
7. Ingurumen iraunkortasuna bermatzea.
8. Garapenerako munduko erakunde bat sustatzea.

## ZER DA PEKINGO EKINTZA PLATAFORMA?

Emakumeari buruzko IV. Mundu Biltzarrean 189 herrialdek onartu zuten Pekingo Ekintza Plataforma, 1995ean. Emakumeen eskubideei buruz dagoen agiri osotuena da. Biltzar eta hitzarmenetan lortutako guztia barne hartzen du, esaterako, Emakumearen aurkako Bazterkeria mota guztiak desagerrarazteko Hitzarmenean jasotzen dena. Plataforma honetan bildutako hamabi arlo hauek gainditzeko lan egin beharko dute gobernuak:

- A. Pobreziaren feminizazioa.
- B. Berdintasun eza hezkuntzarako sarbideari dagokionean.
- C. Berdintasun eza osasun arreta eta gozamenari dagokionean.
- D. Emakumeen aurkako indarkeria.
- E. Gatazka armatuak.
- F. Berdintasun eza ekonomi aukeretan
- G. Berdintasun eza botereko eta erabakiak hartzeko postuetan.
- H. Erakundeen ahulezia eta bazterkeria generoen arteko berdintasuna sustatzeko.
- I. Emakumeen giza eskubideak urratzea.
- J. Estereotipoak eta emakumeen parte-hartze eza hedabideetan.
- K. Emakumeen parte-hartze urria ingurumenaren kudeaketan.
- L. Neskatoen eskubideak urratzea.

## ZEINTZUK DIRA KANPAINAREN ANTOLATZAILEAK?



**Ayuda en Acción** Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat da, independentea, ez-konfesionala, eta apartidista. Bere helburua da haurren, beren familien eta komunitateen bizi-baldintzak hobetzea herrialde eta eskualde pobreetan, horretarako, garapen integraleko proiektu autoiraunkorrek eta sentsibilizazio jarduerak garatuz. Bere helburu nagusia da egitura aldaketak sustatzea, pobreziarekin amaitzen laguntzeko. Une honetan, hiru kontinentetako (Asia, Afrika eta Amerika) 19 herrialdetan dago.

Sarrikoalde plaza, 2 beheko solairua  
(Sarrera Agirre Lehendakariaren kaletik) 48015 Bilbao  
Tel. + 34 94 447 96 77 - [www.ayudaenaccion.org](http://www.ayudaenaccion.org)



**Entreculturas** jesuitek sustatutako GGKE bat da, Hegoaldean sortua eta hezkuntza tresna gisa erabiltzen duena garapenerako, eraldaketarako, gizarte aldaketarako eta kulturen arteko elkarriketarako. Horregatik, hainbat proiektu babesten ditu hezkuntza eraman ahal izateko Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialde baztertuetara. Bestalde, Iparraldeko gizarte sentsibilizatzeko lanetan dihardu, bertako egiturak eraldatzeko, eta horrela, Hegoaldearekin batera, justiziaren aldeko aldaketarako faktore bihurtzeko.

C/ Pablo Aranda, 3. 28006 Madril  
Tel.: +34 915 902 672 - [www.entreculturas.org](http://www.entreculturas.org)



**InterRed** Institución Teresiana-k sustatutako GGKE bat da. Gizarte zibilaren bidez, harreman sare bat bultzatzeko, eta gizarte taldeen, herrien eta kulturen artean elkartasuna sustatzeko. Bidegabekeria sortzen duen errealitate sozio-ekonomiko hau aldatu nahi du, eta pobrezitate, gizakien arteko ezberdintasunen eta bazterkeriaren aurka borrokatu gizarte-hezkuntzako prozesuen bidez, betiere giza eta genero eskubideen ikuspegiari oinarrituz.

Seminario de Nobles, 4, 5ºCentro. 28015 Madril  
Tel.: +34 915 416 458 - [www.interred.org](http://www.interred.org)

Finantzatuta:



Mugitu berdintasunaren alde  
**Bidezkoa da**

## BA AL DAKIZU BENETAN NOLA BIZI DIREN EMAKUMEAK?



[mueveteporlaigualdad.org](http://mueveteporlaigualdad.org)

# Erakutsi zenbateraino dakizun test honen bidez:



**1** Munduko zein eskualdetan dituzte gizon eta emakumeek eskubide berberak? Eta eskubide horiek non gauzatzen dira berdintasunez?

- a) Inon ez
- b) Europan eta Ipar Amerikan
- c) Ozeanian

**2** Pobrezian bizi direnen artean, zenbat dira emakumeak?

- a) %50
- a) %70
- c) %15

**3** Munduan, oro har, nolako boterea dute emakumeek erabaki politikoak hartzerakoan?

- a) Gizonek baino handiagoa
- b) Gizonek baino txikiagoa
- c) Gizonen antzekoa

**4** Mendebaldeko Europan emakumeek gizonek baino zenbat ordu gehiago egiten dute lan?

- a) Ordu kopuru bera
- b) Bi ordu gehiago
- c) Bost-sei ordu gehiago



## EMAITZAK

### 1.a Emakumeek eta gizonek inon ez dituzte eskubide berberak.

Emakumeak ezberdintasun egoeran bizi dira, nagusiki, gizarteak rol bereizle eta diskriminatzaileak eman dizkielako gizon eta emakumeei.

Zenbait herrialdetako gobernuek hitz eman zuten neurri batzuek hartuko zituztela nazioarteko hitzarmenen bidez (hala nola, Milurtekoaren Helburuak eta Pekingo Ekintza Plataforma), baldintza berdinetan aurrera egiteko:

- Neskato eta emakumeek hezkuntzarako sarbidea izango dutela bermatzea.
- Berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzea, legearen aurrean eta praktikan.
- Oinarri demokratiko, parte-hartzaile eta berdintasunezkoetan bermatutako gizarte egituratuak eraikitzea.

### 2.b Emakumeak pobrezia egoeran bizi diren biztanleriaren % 70 dira.

Pobreziaren aurpegia emakumezkoarena da oraindik ere. Behera egin beharrean, emakume pobreen kopuruak gora egin du, pairatzen duten bazterketaren ondorioz. Emakume askori hezkuntza eta osasuna bezalako oinarriko eskubideak ukatzen zaizkie.

Egoera larri honen aurrean, Milurtekoaren Adierazpenean jasotako helburu nagusietako batek **premiazkotzat jotzen du genero berdintasunaren eta emakumeen autonomiaren aldeko borroka.**

## KANPAINA HONEN HELBURUAK

1. **Ezagutzera ematea emakumeen diskriminazio egoera, diskriminazio horren arrazoiak eta ondorioak, eta baita ere emakumeek beren bizi-baldintzak hobetzeko egiten duten lan garrantzitsua.**

2. **Espainiako Gobernuari eskatzea Pekingo helburuak eta Milurtekoaren Helburuak bete ditzala Gobernuaren lankidetzaren politiketan, eta nazioarteko foroetan defenda ditzala.**

### 3.b Emakumeek gizonek baino botere eta presentzia txikiagoa dute politikan.

“Pertsona orok du bere herrialdeko funtzio publikoan berdintasunezko egoeran sartzeko eskubidea”. Hala adierazten da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean. Baina, errealitatea oso desberdina da, izan ere, emakumeen presentzia %13koa baino ez da munduko parlamentu guztietan.

Emakumeak ez badaude botere-guneetan sartuta, inork ez ditu beren interesak ordezkatuko. Dagokien eremua bete dezaten beharrezkoa da, **batetik, beren parte-hartzea sustatzea erabakiak hartzeko guneetan eta, bestetik, inplikazio hori berdintasun baldintzetan gauzatuko dela bermatzeko legeak sortzea.**

### 4.c Mendebaldeko Europan emakumeek gizonek baino bost-sei ordu gehiago egiten dute lan.

Emakumeek lan gehiago egiten dute eta, gainera, gizonek baino gutxiago irabazten dute, eta, kasu askotan, egiten duten ahalegina ordaindu ere ez zaie egiten.

Beren lana aintzakotzat ez hartzea, ez da eremu profesionalera bakarrik mugatzen. Izan ere, etxe eta zaintza lanetan aritzea ez da baloratzen, denok dakigun arren, ezinbestekoa dela lan horiek egitea gizarteak aurrera egin dezan.

Hona hemen arazo horiekin amaitzeko irtenbide batzuek:

- Gizon eta emakumeek ekonomi eta heziketa aukera berdinak izatea.
- Lege eta praktika diskriminatzaileak ezabatzea.
- Lan-legeria hobetzea.
- Enplegua sortzen inplikaturik dauden agenteak kontzientziatzea.
- Gizon eta emakumeen artean modu berean banatzea bai etxeko lanak eta bai laguntza behar duten pertsonen zaintza, eta, bestalde, gobernuek erantzukizuna har dezatela arlo horietan.

## ZU ERE IRTENBIDEAREN PARTE IZAN ZAITEZKE

Gauzak aldatzea nahi baduzu, kanpaina honetan parte hartzea proposatzen dizugu. Horretarako zenbat modu daude:

- Informatu eta erregistratu zaitez [www.mueveteporlaigualdad.org](http://www.mueveteporlaigualdad.org) web orrian.
- Lagundu sentsibilizazio lanetan, kanpainaren helburuak zabalduz.
- Parte hartu gure jardueretan.